

# ZAINZAREN LABURPENA

# 2018

**Zaintza**  
**Epidemiologikoaren**  
**Unitatea**  
**Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN SAILA**  
**Osasun Publikoaren eta Adikzioen**  
**Zuzendariordetza**

**BIZKAIKO ZEU-KO PERTSONALA 2018. URTEAN**

**Administrariak**

Ana Eva del Valle Araluce, Agustín Virumbrales Santibáñez

**Erizainak**

Xabier Beraza Ortiz, Marta de la Cruz Ortega, Itxaso González Sancristobal,  
Sabino San José Rodríguez, Rosaura Santamaría Zuazua

**Epidemiologoak**

Eva Alonso Fustel, Concha Castells Carrillo,  
Visitación de Castro Laiz, Esther Hernández Arricibita,  
Nerea Muniozguren Agirre, Madalen Oribe Amores, Amaia Soraluze Olañeta

## Aurkibidea

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>5</b>
<b>2. GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIEN ZAINTZA .....</b>	<b>6</b>
2.1. Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak.....	6
2.2. Transmisio parenteraleko gaixotasunak .....	10
2.3. Arnas-transmisioa duten gaixotasunak .....	10
2.4. Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak .....	12
2.5. Bektoreek transmititutako gaixotasunak .....	13
2.6. Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak .....	14
2.7. Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak.....	14
2.8. Bestelakoak .....	17
<b>3. GAIXOTASUN KRONIKOAK .....</b>	<b>19</b>
3.1. Osasun determinanteak eta arrisku faktoreak .....	19
3.2. Minbizia. (GNS 10: C00-C99; D45-D47) .....	23
3.2.1. Kolon eta ondesteko minbizia (KOM). (C18-C20) .....	29
3.2.2. Bularreko minbizia. (C50) .....	29
3.2.3. Biriketako minbizia. (C33-C34) .....	30
3.3. Gaixotasun kardiobaskularrak. (GNS-10: I00-I99).....	31
3.4. Arnas-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: J00-J99) .....	35
3.5. Digestio-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: K00-K95) .....	38
3.6. Trastorno mentalak eta portaerarenak. (F01-F99) .....	40
3.7. Nerbio-sistemako gaixotasunak. (G00-G99) .....	44
3.8. Gaixotasun endokrino, nutrizional eta metabolikoak. (GNS-10: E00-E89) ....	46
3.9. Sistema genitourinarioko gaixotasunak. (GNS-10: N00-N99) .....	49
3.10. Erikortasun eta hilkortasunaren kanpoko arrazoiak. (GNS-10: V00-Y98).....	51
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>54</b>
I. ERANSKINA. Populazioak .....	54
II. ERANSKINA. Zaintzapean dauden gaixotasunak.....	55
III. ERANSKINA. Informazio mikrobiologikoko sistema (IMS).....	62
IV. ERANSKINA. Elikagaiengatiko agerraldiak edo pertsona-pertsona .....	63
V. ERANSKINA. Tumore gaiztoak .....	64
VI. ERANSKINA. Ospitaleko erikortasuna.....	66
VII. ERANSKINA. Hilkortasuna 2017 .....	67

## Erabilitako laburdurak

<b>ABG</b>	Aitortu Beharreko Gaixotasun Erregistro Sistema	<b>HL</b>	Hodgkin linfoma
<b>ATE</b>	Adinaren arabera estandarizatutako tasa	<b>HTA</b>	Hipertentsio arteriala
<b>BGBK</b>	Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa	<b>IEA</b>	Intzidentzia-estandarizatuaren arrazoia
<b>CJG</b>	Creutzfeldt-Jakob gaixotasuna	<b>IMS</b>	Informazio Mikrobiologikoko Sistema
<b>DGOM</b>	Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoa	<b>KI</b>	Kardiopatia iskemikoa
<b>DM</b>	Diabetes mellitus	<b>KOM</b>	Kolon eta ondesteko minbizia
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa	<b>KT</b>	Konfiantza-tartea
<b>EDB</b>	Estratifikazio Datu Basea	<b>LMK</b>	Leuzemia mieloide kronikoa
<b>EHA</b>	Estandarizatutako hilkortasun-arrazoiak	<b>MIA</b>	Miokardioko infartu akutua
<b>EHL</b>	Ez Hodgkin linfoma	<b>NS</b>	Nerbio sistema
<b>ESI</b>	Erakunde Sanitario Integratua	<b>NSZ</b>	Nerbio sistema zentrala
<b>EUSTAT</b>	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística	<b>OME</b>	Osasunaren Mundu Erakundea
<b>GGK</b>	Giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa	<b>PBA</b>	Paralisi bigun akutua
<b>GHG</b>	Garun-hodietako gaixotasuna	<b>RCEME</b>	Registro de Cáncer de Euskadi – Euskadiko Minbizi Erregistroa
<b>GI</b>	Gabezia-indizea	<b>STG</b>	Sexu bidez transmititutako gaixotasunak
<b>GIB</b>	Giza immunoeskasiaren birusa	<b>TE</b>	Tasa estandarizatua
<b>GNS</b>	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena	<b>TEA</b>	Tasa estandarizatuaren arrazoia
<b>GSG</b>	Gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonak	<b>TG</b>	Tasa gordina
<b>HIES</b>	Hartutako immunoeskasiaren sindromea	<b>UAP</b>	Urteroko Aldaketa Portzentaia

Dokumentu honek 2018an Bizkaian gertatutako gaixotasun transmitigarrien eta gaixotasun ez transmitigarri batzuen laburpen bat erakusten du.

Gaixotasun transmitigarriei dagokienez, EAEn zaintzapean dauden gaixotasunen bilakaera ohiko informazio sistemen bidez erakusten da: Aitortu Beharreko Gaixotasunak (ABG), Mediku Jagoleen Sarea eta Informazio Mikrobiologikoa Sistema (IMS).

Arlo honetan nabarmendu dugu 2018an elgorriaren azaleratzea, Europan zehar behatutako joerari jarraituz, parotiditisaren intzidentzia altua eta 2015 urte aurretik erregistratutako kukutxeztularen antzeko tasetara itzultzea. Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunei dagokienez Campylobacteriosis delakoaren etengabeko hazkundera behatzen da, hau da, jadanik EAEn talde honetako lehen gaixotasunaren kausa da. Gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonetan (GSG) disenteriaren hazkundera ikusten da, halaber A hepatitisia, iaz talde honetan igo zen arren, aurten gutxitu egiten da. Gaixotasun meningokozikoaren hazkundera ere nabarmentzen da, pertsona helduetan W135 meningokokoaren azaleratzeak erator daitekena.

Gaixotasun kronikoei buruzko atalean, GNS-10 bidez sailkatutako gaixotasun talde handien artean hautatutako gaixotasun garrantzitsuenen deskribapen datu garrantzitsuak aurkezten ditugu. Determinanteei eta arrisku faktoreei buruzko atal bat ere gehitu dugu. Horretarako, sistema edo erregistro desberdinetako informazioa erabili dugu. Horrela, prebalentzia kalkulatzeko, 2017ko Osakidetzako Estratifikazio Datu-Basearen (EDB) datuak eta EAeko Osasun Inkestaren (EAEOI2018) datuak erabili dira; intzidentziarako, EAeko Populazio Minbizi-Erregistroa (RCEME, 2015) eta Datuen Gutxieneko Oinarrizko Multzoaren (DGOM, 2017) Ospitaleko Alten Erregistroa, eta hilkortasunerako, Hilkortasun-Erregistroa (2017).

Besterik adierazi ezean, EUSTATEko 2018ko populazio datuak (I. eranskina) erabili dira izendatzailetzat. Deskribapenerako eta tasen estandarizaziorako, 21 taldetan banatzen den biztanleriaren egitura erabiltzen dugu, 84 urte baino gehiagotan hiru taldetan zehaztuta: 85tik 89ra, 90tik 94ra, eta gehiago. 2013ko Europako biztanleria estandarra erabiltzen da.

Erabilitako osasun-eskualdeak bost ESItan banatzen dira: Barrualde-Galdakao (Arabako Lurralde Historikoko udalerrien salbuespenaz: Llodio, Amurrio, Artzeniega, Aiala eta Okondo), Barakaldo-Sestao, Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta, Uribe eta Bilbo-Basurtu.

Izatez Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan arren, Arabako Osasun Arloan (Ubide eta Otxandio) edota Gipuzkoakoan (Ermua eta Mallabia) sartuta dauden udalerriek aitortutako gaixotasunak Bizkaiko datu orokorretan daude kontabilizatuta.

Jarraian, Aitortu Beharreko Gaixotasunen (ABG) erregistro sistematik eta Informazio Mikrobiologikoko Sistematik (IMS) jasotako zaintzapean dauden gaixotasun transmitigarri buruzko informazio garrantzitsuena aurkezten da. Gaixotasun batzuetarako IMStik lortutako informazioa bakarrik daukagu, beraz, ezin dugu ESren arabera banatu. Datu orokorrak eta ESi eta sexuaren arabera bereizi ahal izan direnean, II. Eranskinean jaso dira. Halaber, Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek IMSra aitortu dituzten gaixotasunen datuak III. Eranskinean aurkezten dira.


### 2.1. Elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunak

Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek *Campylobacter*-ek erangindako 1241 infekzio deklaratu zituzten (108,79/100 000). **Kanpilobakteriosia** batez ere oilasko-haragi kutsatuen manipulazioak eta kontsumoak eragindako gaixotasuna da, eta 2018. urtean hazkunde nabarmena izan du. Bizkaian eta EAEan elikagaien bidez transmititutako gaixotasunen lehen kausa da.

2018ko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko oilaskoetan aurki daitezkeen *Campylobacter*-en kontrolerako araudi berri bat sortu zen arren, 1994tik, IMSren bidez datuak ditugun urtetik hain zuzen, isolamendu kopururik handiena urte honetan eman da, 2017 urtearekin alderatuta %53ko gehikuntza eman zelarik.

Kasu guztien artean, tasarik altuena (898,34/100 000) urte bat baino gutxiagoko haurretan eman zen. ESren araberako bizilekuen kasuen banaketan ez zen desberdintasun aipagarririk antzeman, Bilbo-Basurtuko 98/100 000 eta Barakaldo-Sestaoko 118 bitartearekin.

#### Kanpilobakteriosiaren urteko bilakaera, Bizkaia, 2009-2018



Iturria IMS

140 kasu (12,27/100 000) eta 284 **giardiasi** (24,90/100 000) deklaratu ziren **Kriptosporidiasi**, biak urtaroeekin estuki lotuta, uda-hilabeteetan maiztasun handiagoarekin aurkezten zirelarik.


**Sukar tifoidearen** hiru kasu eta **paratifoideo**ko kasu bat erregistratu genituen, guztiak zonalde endemikoetatik inportatuak.

Aurreko urteetako kopuruetara itzuli gabe, **A motako hepatitis** kasuen jaitiera nabarmena ikusi zen; 57 kasu berri deklaratu ziren (4,99/100 000), aurreko denboraldiaren ia erdia izan zena. G/E arrazoia 1,85 izan zen eta gehien kaltetutakoak 20tik 29 urte bitarteko adin taldekoak izan ziren, batez besteko tasaren ia hirukoitza(13,22/100 000).

Identifikatutako arrisku-faktoreei dagokienez, kasuen %17 gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonen (GSG) taldeetan gertatu zen, %16 zonalde endemikoetara joandako bidaiekin erlazionatuta zegoen, %14 beste kasu batetik agertutakoak eta %10 agerraldi modura gertatu ziren. Kasuen %42 ez zen inolako arrisku faktoreekin lotu.


Genotipoa ezagutzen dugun hamabost kasuen artean, lau IB genotipoa dira eta hamaika IA genotipoa, azken hauek Europan gertatutako GSG agerraldietan aurkitutako anduiekin erlazionatuta.

Hurtzaindegi eta ikastetxe batekin erlazionatutako kasuen taldekatze bat identifikatu zen; sei pertsona kaltetuta (bost heldu eta haur bat). Umeek gaixotasunaren transmititzaile azpikliniko bezala jokatu zuten.




**E hepatitisaren** bost kasu eman ziren, guztiak arrisku-faktorerik gabeko berrogeita hamar urte baino gehiagoko gizonetan.

**Listeriosiaren** hamabi kasu deklaratu ziren; guztiak zuten gutxienez arrisku-faktore bat (minbizi edo gaixotasun kronikoren bat), eta batez besteko adina 74 urtekoa zen. Hilgarritasun altua (%33) izan zuten.




Mikrobiologiako laborategiek 202 **errotavirus** (17,71/100 000) deklaratu zituzten, 2017an baino pixka bat gutxiago. Ohikoa den bezala, aitortpenen %91 urteko hilabete hotzenetan gertatu ziren, erpin epidemikoa martxoan kokatu zelarik. Aitortutako kasuen %84 hiru urte baino gutxiago zituzten adinetan izan zen.

**Errotavirusaren hilabeteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018**



**Salmonellosiari** dagokionez, 284 kasu (24,28/100 000) erregistratu genituen (aurreko urtearekin alderatuz beherakada nabarmena). Kasuen %37 hamar urtetik beherako umeetan antzeman ziren. *S. Thyphimurium* (%67) izan ziren andui gehienak, eta ondoren Enteritidis (%14), gutxiago agertzen zelarik. ESI desberdinen artean, gaixotasun horren intzidentziari buruz ez zen desberdintasun nabarmenik ikusi.

**Salmonellosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018**




Aurreko urtearekin konparatuz **disenteria** kasuen gorakada nabarmena ikusi zen, deklaraturako 32 kasurekin (2,80/100 000). Gizonezkoetan maiztasun handiagoa eman zen (G/E=3 arrazoa) eta batez besteko adina 32 urtekoa izan zen. Kasu gehienak *Shigella Sonnei* izan ziren, *Shigella Flexneri* jarraitzen ziolarik. Emandako arrisku-faktoreei dagokienez, kasuen %50ek zonalde endemikoetako egonaldia lotuta zeuden eta %19k arriskuko sexu-harremanak mantendu zituzten.

Bost kasu taldekatu gertatu ziren Bizkaiko udalerrri bereko familia bitan. Bestaldetik leku berean (sauna) arrisku praktikekin zerikusia zuten kasu bi ikertu ziren. Bi pazienteen anduiak *Maspalomas Pride* ospakizunarekin lotutako nazioarteko alerta batean identifikatutakoaren berberak izan ziren.




### Disenteriaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018



Iturria ABG

2018. urtean 39 *Yersinia*-kasu izan ziren (3,42/100 000), guztiak Enterocolitica serotipokoak. Kasuen %46 hamar urtetik beherako umeetan antzeman ziren.

### *Yersinia* isolamenduen urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018



Iturria IMS

### Elikagaiengatiko toxiinfekzio edo pertsonaz-pertsonako agerraldiak


2018an, elikagai-intoxikazio edo pertsonaz-pertsonako transmisioko 16 agerraldi ikertu ziren, 444 pertsonetan eragina izanik (IV. Eranskina).

Ikertutako agerraldien erdiak pertsona nagusien edo elbarrien egoitzetan gertatu ziren eta pertsona batetik bestera transmititu ziren. Zortzi agerraldietatik zazpitan mikroorganismo eragilea zehaztu ahal izan zen, guztietan Norobirusa izan zelarik (I taldeko hiru eta II taldeko lau).

Gainerako agerraldiak ostalaritza establezimenduetan edo etxe pribatuetan gertatu ziren, ikastetxe batean gertatu zen bat izan ezik. Aldi bitan ibilgailuak Norobirusarekin kutsatutako ostrak eta muskuiluak izan ziren. 28 pertsona kaltetutako agerraldi bat gertatu zen etxebizitza batean iruzurrezko arroz-salmentarekin erlazionatuta; arrozean estafilokokoren toxina eta *Bacillus cereus* detektatu ziren.

Azpimarratzekoa da aurten salmonellaren ondoriozko agerraldirik ez dela erregistratu, aurreko urtean hamar ikertu baitziren.

## Salmonella eta beste kausa batzuek eragindako elikagaiengatiko toxiinfekzio agerraldiak, Bizkaia 2009-2018



Iturria ABG

## 2.2. Transmisio parenteraleko gaixotasunak


Talde honetan, **B hepatitis** hiru kasu soilik deklaratu ziren, txertatu gabeko 50 urte baino gehiagoko pertsonetan, eta **C hepatitis akutu** kasu bi.

## 2.3. Arnas-transmisioa duten gaixotasunak

**Gripearen** 2018/19 denboraldian, EAEko Mediku Jagoleen Sareak dioenez, 2018ko 50. astean gairitu zen atalase-epidemikoa, gehienezko intzidentziaren erpina aurreko denboraldian bezala 2019ko 3. astean iritsi zelarik. Denboraldi guztian zehar Sare Jagoleak 1504 gripe kasu erregistratu ditu (2754 kasu 100 000 biztanleko).

Denboraldi honetan isolatutako birus guztiak A tipokoak izan dira: %42 AH1N1 pdm09, %40 AH3 eta %18 AH3N2. 2017/18 denboraldian ez bezala, B birusaren zirkulazio nagusia hasieratik behatu zen. Bizkaiko ospitaleek 435 gripe kasu larri erregistratu zituzten; hauetatik 79 hil egin ziren. Pertsona nagusien egoitzetan bost agerraldi detektatu ziren.

## Gripearen asteko bilakaera, EAEko 2018/2019 denboraldia




Iturria: Sare Jagolea

**Legionelosiaren** 46 kasu deklaratu ziren, 4,03/100 000eko tasarekin, azken urteotan erregistratutakoa baino zertxobait altuagoa zelarik. Kasu gehienek 50 urte baino gehiagoko pertsonetan gertatu ziren. Gizonezkoetan nagusi izaten den gaixotasuna izan arren, 2018an emakumezkoen proportzio handiagoa egon zen; sexu-arrazaia 1era hurbiltzen zen lehen aldia izanik. Arrisku-faktorerik ohikoena tabakoaren kontsumoa izan zen (%43). Gaixo bat hil zen, %2ko hilgarritasuna suposatuz.

Barrualde ESiko udalerrri berean gertatutako hiru kasuko taldekatze bat ikertu zen, baina ingurumen ikerketak ez zuten utzi iturria zehaztu.


**Legionelosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018**



2018an erregistratutako **tuberkulosiaren** kasuak 129 izan ziren, 100 000 biztanleko 11,31 kasu suposatzen duena, 2017an baino zertxobait altuagoa. G/E sexu-arrazaia 2 izan zen eta 25-29 urte bitarteko adinekoek intzidentziarik altuena aurkeztu zuten.

Kasu kopurua handitu arren, baziliferoen tasak, komunitatean gertatutako bazilo-zirkulazioaren zeharkako adierazpena dena, azken urteotan behatutako beheranzko joera jarraitzen du: 2,63/100 000. Arrisku faktorerik ohikoena tabakismoa izan zen (%25). Atzerrian jaiotako pertsonen kasuen ehunekoak behera egiten jarraitzen du, guztiaren %29.


**Tuberkulosiaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018**



## 2.4. Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak

Bizkaiko mikrobiologiako laborategiek deklaraturako *Neisseria gonorrhoeae* isolamendu kopurua 280 izan zen. 2013 urtetik **infekzio gonokozikoaren** goranzko bilakaera kezkarria behatzen da.

Bombero Etxanizeko sexu transmisiozko infekzioen (STI) zentroak 238 infekzio gonokoziko deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko sexu-arrazoia 5 izan zen, eta batez besteko adina 34 urte (heina: 16-59). %63 GSG ziren.



**Sifiliaren** deklarazioak ere azken urteotan gorakada bat aurkezten du, 2018. urtean ISMari 145 kasu deklaratu baitziren.

Bombero Etxanizeko STI zentroak 110 sifili kasu deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko sexu-arrazoia 21 izan zen, eta batez besteko adina 39 urte (tartea: 18-73). %82 GSG ziren.


Mikrobiologiako laborategiek ***Chlamydia trachomatis*aren bidezko infekzioen** 477 kasu deklaratu zituzten (41,82/100 000), aurreko urteekin alderatuz nahiko egonkor, eta **linfogranuloma benereoa**ren hamaika kasu.

Bombero Etxanizeko STI zentroak 371 *Chlamydia* kasu deklaratu zituen. Gizon eta emakumeen arteko arrazoia sifilia edo gonorea baino txikiagoa da (G/E=2), eta batez besteko adina 32 urtekoa (tartea: 16-65). Sexu-harreman gehienak heterosexualak dira (%71).

Deklaratu ziren hiru STIetako atzerritarren ehunekoa %29 izan zen. Kasu guztien %31 beste STI batekin kutsatuta zegoen, %48 aurretik beste STI bat izana zuen eta %15 GIB positiboak ziren. Kasuen %53an kontaktuen ikerketa egin ahal izan zen.

HIES eta sexu bidezko infekzioen EAeko planaren arabera, aurreko urtearekin alderatuz Bizkaian diagnostikatutako **GIB** eta **HIES** kasuen kopurua 2018an igo egin zen. Horrela, 19 kasu HIES diagnostikatu ziren, 2018an baino hamar gehiago, 18 gizonak zirelarik. Hamabost kasutan identifikatutako transmisio mekanismoa sexu-harremanak izan ziren, hamaika homosexual eta lau heterosexual. Gainerako hiru kasuak drogak bide parenteralez hartzen zituztenak ziren.

Bizkaian GIBren 96 infekzio berriak diagnostikatu ziren (2017an 72); %83a gizonak ziren. Batez besteko adina gizonekoetan 38 urtekoa izan zen eta 36 emakumezkoetan. Kutsatutako pertsonen %45 atzerritarrak ziren. Irudian emakumeen eta gizonen transmisio bideak erakusten dira.



Iturria: HIESaren eta Sexu bidezko Infekzioen Plana


## 2.5. Bektoreek transmititutako gaixotasunak

2018 urtean hiru **denge** kasu deklaratu ziren Bizkaian, hirurak zonalde endemikoetako bidaiekin lotutakoak. Kontuan izan behar da Espainian lehenengo aldiz sei kasu autoktono konfirmatu direla, beraz, tigre-eltxoak gure komunitatean ezartzen den heinean gerta daiteke hemen erekasuak agertzea.

**Chikungunya birusak eragindako gaixotasunaren** kasu bakarra deklaratu zen, Tailandiako bidaia batekin lotuta. 2018an ez zen gaixotasun honen bertako kasurik detektatu European.

**Paludismoaren** 24 kasu erregistratu ziren, 16 emakume eta 8 gizon, 9 eta 63 urte bitarteko adin-tartearekin eta 32ko batez bestekoarekin. Hogei kasutan *Plasmodium falciparum* identifikatu zen, *P. vivax* kasu bitan eta beste bitan parasitazio mistoak eman ziren.

### Bertako biztanleri eta atzerritarren Paludismoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018



Iturria ABG


22 kasutan infekzioaren jatorria Afrika izan zen; Ekuatore Ginea eta Nigeria nabarmenak ziren. Bolivian kasu bi infektatu ziren. Zonalde endemikoetatik etorritako hiru gaixotik bi beren jaioterrira bidaiatutakoak ziren, bost etorkin heldu berriak ziren, eta hiru hemengo bidaiariak. Batek ere ez zuen kimioprofilaxi osoa osatua.

## 2.6. Transmisio zoonotikoa duten gaixotasunak

Azken urteetan izandako agerraldien ostean 2018an **Q sukarrak** beherakada nabarmena izan zuen. 23 kasu erregistratu genituen (tasa: 2,02/100 000), horietatik zazpi, 2014an Q sukarraren agerraldi bat izan zuen enpresa bateko langileak ziren, nahiz eta oraingoan eraso-tasa askoz ere txikiagoa izan.

Sexu-arrazoia (G/E) 2,3 izan zen, eta 25-44 urteko adin-taldea izan zen kaltetuena. Barrualde-Galdakao ESIan tasa altuagoa ikusi zen: 3,29/100 000. Grafikoan azaltzen den moduan, Q sukarraren banaketan urtaroez eragin handia dute oraindik ere.

**Q sukarraren hilabeteko banaketa. Bizkaia 2009-2018**



Iturria: IMS eta ABG

Deklaratutako **leptospirosis** bost kasuetatik hiru Arabako udalerrri batean gertatutako agerraldi baten ondorio izan ziren, ibai batean bainatzeagatik.

**Hidatidosi** kasu bi bildu ziren. Duela hamar urte baino gehiago gaixotutako pertsonak ziren, berriz ere sintomak agertu zituztenak.


## 2.7. Txertaketaz saihas daitezkeen gaixotasunak

**Haemophilus Influenzae-ren gaixotasun inbaditzaile** 14 kasu erregistratu ziren, horietatik zortzi 65 urte baino gehiagoko nagusietan. Pertsona bi hil ziren. Aztertutako hamabi anduien artean, hamaika kapsulatu gabekoak izan ziren eta bat tipifikatu gabekoa; b serotipoko anduiak ez ziren identifikatu. Isolamendu guztiak hemokultiboan egin ziren.

**Gaixotasun meningokozikoaren** 18 kasu deklaratu ziren, 2017an deklaraturakoaren bikoitza, 55 urte baino gehiagoko pertsonetan (6 kasu) W135 serotaldeko kasuen azaleratze handiarekin, lehenengo aldiz serotalde arruntena izanik, B eta Cren gaineratik. W andui hauen nagusitzea Europako hainbat herrialdetan ere deskribatu da. Pertsona bi hil ziren, C

serotalde meningokokoak sortutako bi kasu bakarrak, normalean hilgarritasun handiagoa aurkezten duelarik.


### Gaixotasun meningokozikoaren urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018



Iturria ABG

***Streptococcus pneumoniae*-ren gaixotasun inbaditzaileak**, 122 kasurekin, 100 000 biztanleko 10,70 kasuko tasa aurkeztu zuen. Gaixoen batez besteko adina 59 urtekoa zen, lau hilabete eta 94 urte bitarteko adin tartearekin. Bost urtetik beherako haurretan zortzi kasu erregistratu ziren, euren adinerako behar bezala txertatuta zeudenak. Horietatik sei kasutan serotipoa aztertu zen eta bat ere ez zegoen egutegiko txertoaren barne.

### Gaixotasun neumokoziko inbaditzailearen urteko bilakaera 5 urte baino gutxiagoko haurretan, Bizkaia 2009-2018




Iturria: IMS eta ABG

Helduetan izandako kasuen %36 neumokokoaren aurka txertatuta zeuden. Ez-txertatuen artean, %48ek txertoa gomendatua zuten, 64 urte baino gehiagokoak zirelako edo arrisku faktoreren bat zutelako.

Aurten **parotiditis**aren intzidentzia oso altua izan da, 100 000 biztanleko 41,99 kasuko tasarekin, eta indize epidemikoa azken bost urteetako ia lau aldizko medianarekin. Deklaratutako kasu gehienak 20 urtetik beherako adinekoetan gertatu ziren, hau da, txertatutako biztanlerian. Txertaketa izan arren, gaixotasunaren eredu ziklikoa mantentzen da.

### Parotiditisaren bilakaera lau-asteka, Bizkaia 2006-2018




Iturria: ABG

**Poliomelitis**arekiko Erradikazio Programaren barruan Paralisi Bigun Akutu (PBA) kasuen zaintzak jarraitzen du. 2018an OMEk poliobirus basatien poliomelitis 33 kasu erregistratu zituen, endemikoak ziren hiru herrialdeetatik bi herrialdetara mugatuta: Pakistan (12), Afganistan (21) eta Nigeria (0). Gainera, poliobirus txertoaren zirkulazio-birusekin erlazionatutako 105 kasu identifikatu ziren.

Bizkaiari dagokionez, 2018an 21 hilabeteko PBA kasu bat identifikatu zen, eta behin betiko diagnostikoa Guillain Barré sindromea izan zen.

Europar izandako joerari jarraituz, 2018 **elgorriaren** jarduera handiko urtea izan zen, bost kasu konfirmatu baitziren. Horietatik hiru agerraldi baten parte ziren, 2019ko lehenengo asteetan ere jarraitu duena beste bi kasurekin. Bestalde, bi kontaktuen ikerketa egin ziren, Nafarroako kasu birekin kontaktua izan zuten Bizkaiko pertsonen artean. Gainera, protokoloa aktibatu gabe baztertutako zazpi susmo aztertu egin ziren.

### Elgorriaren urteko bilakaera adin pediatrikoan\* eta helduetan, Bizkaia 2000-2018




\* 14 urterarte  
Iturria ABG

**Kukutxetzulak** 100 000 biztanleko 8,77 kasuko intzidentzia-tasa aurkeztu zuen, EAEn baino zertxobait txikiagoa (15ekoa izan zen hau). Honek, azken urteekin konparatuz, jaitsiera nabarmena suposatzen du. Tasarik handiena urtebete baino gutxiagoko haurrei zegokien. Erregistratutako kasuen %30 kukutxetzularen aurka ongi txertatuta zegoen, %54k osatugabeko txertaketa zeukan eta %6k ez zuen inolako dosirik, familiak hala erabaki zuelako



edo bi hilabete baino gutxiago zeukatelako. Gainerako %10aren txertaketa egoera ez da ezagutzen, guztiek hogeita bost urte baino gehiagokoak zirelarik.

### Kukutxeztularen urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018




**Barizelaren** intzidentzia 2017an baino txikiagoa izan zen, eta gehiago jaitea espero da 2016tik goiz haurtzaroan txertatzen delako (2015eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak).

## 2.8. Bestelakoak

**A taldeko estreptokokoagatiko gaixotasun inbaditzailearen** 28 kasu deklaratu ziren (2,46/100 000), horietatik zortzi adin pediatriakoan. Shock estreptokoziko toxikoaren ondorioz bi urteko haur bat hil zen, eta bere eskolan barizelaren kontrako txertaketa egin zen, A estreptokokoarekiko gaixotasun larriaren arrisku faktorea delako hori.

### A taldeko estreptokokoak eragindako gaixotasun inbaditzailearen urteko bilakaera, Bizkaia 2009-2018



Taulan 1993-2018 urteetan EAEko **gizakietan gertatu ziren entzefalopatia espongiforme transmitigarrien** kasuak erakusten dira. Noizbehinkako kasuen batez besteko adina 70,3 urtekoa da eta %56 gizonezkoak dira; familiako kasuen artean, batez besteko adina 55,4 urte dira eta gizonezkoen ehunekoa %60 da.

### Entzefalopatia transmitigarriak, EAE 1993-2018

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
<b>CJG posiblea</b>	1	2	8	<b>11</b>
<b>CJG probablea</b>	5	6	20	<b>31</b>
<b>CJG behin-betikoa</b>	9	32	46	<b>87</b>
<b>Noizbehinkakoak guztira</b>	15	40	74	<b>129</b>
<b>Noizbehinkak. tasa /100 000</b>	1,7	2,0	2,1	<b>2,1</b>
<b>Familiako CJG</b>	1	3	0	<b>4</b>
<b>Familia insomnio hilgarria</b>	20	2	8	<b>30</b>
<b>S. Gerstmann-SS</b>	0	3	0	<b>3</b>

**Eskabiosia** edo **hazteria** aitortu beharreko gaixotasuna izan ez arren, 2018 urtean birulentzia berezia erakutsi zuen, pertsona nagusien edo elbarrien bizilekuetan hamabi agerraldi antzeman ziren, baita etxerik gabeko pertsonen aterpetxeetan ere. Guztira, kaltetutako 230 erabiltzaile eta 31 langile zenbatu genituen. Kaltetutako zentro batzuetan parte-hartzea errepikatu behar izan zen.

EDBren bidez, (Osakidetzaren informazio sistema da hu), EAEn 2013 eta 2018 bitarteko hazteria epigrafea zituzten kontsulten azterketa egin zen, eta intentsitate handiko gehikuntza progresiboa behatzen da, 2018an batez ere, Barakaldo-Sestao, Bilbo-Basurtu eta Ezkerraldea Enkarterri Gurutzetako ESletan.

Arrazoi hauengatik, tratamendurako protokoloak garatu dira, etxerik gabeko pertsonen ahozko medikazioen sarbidea errazteko, eta baita pertsona nagusien eta gizarte osasun zentroen egoitzetako kasuen kudeaketarako.

Atal honetan GNS-10eko gaixotasun talde handietako eritasun kroniko nagusien inguruko datu deskribatzaile garrantzitsuenak aurkezten dira. Osasun determinanteak eta arrisku faktoreak ere lantzen dira.


Gaixotasun talde bakoitzean, gaixotasun azpitalde (2017) bakoitzaren erikortasun eta hilkortasun proportzionalak aurkezten dira lehenengo, eta, aipagarria izanez gero, ESI bakoitzeko tasen banaketa 2000tik 2017ra. Ondoren, talde bakoitzeko gaixotasun nagusienak deskribatzen dira, hasieran prebalentzia adierazleak eta intzidentzia (edo ospitaleratze-maiztasuna) eta hilkortasun tasa orokorrak aurkeztuz. Jarraian, adierazleak deskribatzen dira, kontuan hartuta: pertsona (sexua, adin taldea eta gabezia sozioekonomiko indizea), lekua (bizilekua, ESIka) eta denbora (2000tik 2017ra).

Horretaz gain, V. Eranskiñean Minbizi Erregistroan batutako minbizi gaizto guztien tasa gordinak eta estandarizatutako tasak erakusten dira, VI. Eranskiñean gaixotasun talde handien ospitale-hilkortasuna, eta VIII. Eranskiñean hilkortasunaren inguruko datuak datoz.

### 3.1. Osasun determinanteak eta arrisku faktoreak

Osakidetzak emandako (EDB) datuen arabera Bizkaiko gizonen %22k hipertentsio arteriala (HTA) dute eta %25ek kolesterol maila altuak; emakumeek prebalentzia baxuagoak aurkezten dituzte, %21 hipertentsoak dira eta %24k kolesterol maila altuak dituzte. Bi hauen prebalentziek %50 gainditzen dute 65 urtetik aurrera.

#### HTAren prebalentzia (%) eta trastorno lipidikoak adin-talde eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017



EAEko osasun inkestatik ateratako datuek 2018ko Bizkaiko obesitatearen prebalentzia %15ean kokatzen dute gizonetan, eta %12an emakumeetan. Obesitateari gehiegizko pisua gehituz gero prebalentzia %54ra igotzen da gizonetan, eta %40ra emakumeetan. Prebalentzia altuenak 65-74 urteko adin taldean ematen dira gizonetan, eta 75 urtetik gorako adin taldean emakumeetan.

Tabako kontsumoa handiagoa da gizonen artean, adin-talde guztietan. 2018an Bizkaiko gizonen %22k eta emakumeen %14k erretzen zuten.


Arrisku altuko alkoholaren kontsumoa epe luzean gizonen %19an ikusi da eta emakumeen %12an. 2018an 15 eta 44 urte bitarteko gizon zein emakumeen alkohol kontsumoaren prebalentziak berdintsuak zirela aipagarria da.

### Obesitate + gehiegizko pisuaren prebalentzia (%), tabakoaren kontsumoa, alkoholaren kontsumoa, jarduera fisikoa, dieta osungarria eta lo ordu osungarria adin-talde eta sexuaren arabera. Bizkaia 2018

#### Gizonak


#### Obesitatea (GMI $\geq$ 30) + Gehiegizko pisua (25 $\geq$ GMI<30)<sup>@</sup>

Prebalentzia: %54,4




#### Emakumeak

Prebalentzia: %40,2




#### Gaur egungo tabako-kontsumoa<sup>@</sup>

Prebalentzia: %21,5




Prebalentzia: %14,1




#### Epe luzerako arrisku altuko alkoholaren kontsumoa<sup>@</sup>

Prebalentzia: %18,7




Prebalentzia: %11,9




### Ez du jarduera fisiko osasuntsurik gauzatzen@

**Prebalentzia: %15,2**




**Prebalentzia: %23,0**




### Dieta: egunero fruta/ barazkien 3 errazio baino gutxiago@

**Prebalentzia: %56,2**




**Prebalentzia: %43,0**




### Loa: egunean 7 ordu baino gutxiago@

**Prebalentzia: %19,3**



**Prebalentzia: %24,7**



Iturria: @ EAEOI

Ez dute jarduera fisiko osasuntsurik gauzatzen gizonen %15ek eta emakumeen %23k. Azpimarratu behar da 75 urtetik gorako emakumeetan prebalentzia ia-ia %50ekoa dela.


Egunero fruta eta barazkien hiru errazio baino gutxiago kontsumitzen duten gizonen proportzioa %56 da, emakumeena (%43) baino handiagoa. Gazteek fruta eta barazki gutxi kontsumitzen dute: 15-24 urte bitarteko hiru gaztetatik bik eta 25-44 urte bitarteko bost heldutatik hiruk egunero hiru errazio baino gutxiago kontsumitzen dute.

Gizonen %19 eta emakumeen %25ek egunean zazpi ordu baino gutxiago lo egiten dute. 65 urte baino gehiagoko emakumeek prebalentzia altuenak aurkezten dituzte.




Tabakismo, jarduera fisiko osasuntsu eta fruta/barazkien eguneko kontsumoaren prebalentzien 2002-2018 bilakaera ona da Bizkaiko gizon zein emakumeetan. Aipatzekoa da erretzaileen prebalentziaren beherakada, 2002tik 2018ra %35 jaitsi baita.

## Arrisku faktoreen prebalentzia estandarizatu (%). Gizonak eta Emakumeak Bizkaia 2002, 2007, 2013 eta 2018

### Gizonak



### Emakumeak



G: Gizonak E: Emakumeak

Tab: Tabakismoa; Obs: Obesitatea (GMI>30); Loa: Egunean 7 ordu baino gutxiago lo egiten du;  
OH: Arrisku altuko alkohol-kontsumoa; Fis: Jarduera fisiko osasungarria egiten ez duen biztanleria;  
Fru: egunero fruta/ barazkien 3 errazio baino gutxiagoko kontsumoa.

Iturria: EAEOI


Hala ere, arrisku altuko alkohol kontsumoaren prebalentziaren beherakada nabarmena gizonetan soilik eman da, eta emakumetan 2002ko maila berdinetan mantentzen da. Lo ordu osasungarrien maiztasuna ere mantentzen da, gorabehera batzuekin.

Obesitatearen prebalentzia, aldiz, igo egin da 2002tik gizon zein emakumetan, nahiz eta 2013ko osasun inkestatik mantendu.

### 3.2. Minbizia. (GNS 10: C00-C99; D45-D47)

Eskuragarri dauden azken datuak 2015. urtekoak dira. Urte horretan zehar, 7376 tumore-gaizto erregistratu ziren Bizkaiko biztanleen artean, 4216 (%57) gizonezkoetan eta 3160 (%43) emakumezkoetan. Horrek 768,45 eta 535,40/100 000-ko intzidentzia-tasa gordina suposatzen du gizonezko eta emakumezkoentzat, hurrenez hurren. V. eranskinean tumore-gaizto guztiak sexu eta kokapenaren arabera erakusten dira. Hurrengo grafikoak maiztasun-erlatiboa irudikatzen du, sexu eta kokapenaren arabera.

#### Intzidentzia. Maiztasun-erlatiboa (%) kokapen ohikoetan, Bizkaia 2015




Kokapena GNS-O3en arabera. Aho-faringea: C00-06;C09-C14; Hestegorria: C15; Urdaila: C16; Kolon-ondestea: C18-C20; Gibela: C22; Pankrea: C25; Laringea: C32; Birikak: C33-C34; Melanoma: C44 eta M8720-8790/3; Bularra: C50; Umetokia: C54; Obulutegia: C56; Prostata: C61; Obulutegia: C64; Maskuria: C67; Entzefaloa: C71; Tiroidea: C73; Ez Hodgkin linfoma/leuzemia linfoidea: M9590-9596/3, 9670-9729/3; 9761-9764/3, 9820-9837/3

Iturria: RCEME

Minbizien %0,4 (32) 20 urte baino gutxiagoko pertsonetan diagnostikatu zen, 19 mutil (186,9/1 000 000) eta 13 neska (134,8/1 000 000). Haur eta gazteen artean sarrien erregistratutako tumoreak leuzemiak, NSeZko tumoreak eta linfomak izan ziren.

#### Minbiziaren kasu kopurua eta intzidentzia-tasa 100 000ko adin-talde eta sexuaren arabera. 2000-2015 (<20 urte). 2015 (>=20 urte). Bizkaia




Iturria: RCEME

Helduetan minbiziaren intzidentzia adinarekin igotzen da bi sexuetan, eta beti da altuagoa gizonetan, 20-49 urteko adin-taldean izan ezik. Hurrengo grafikoak kokapen ohikoenen intzidentzia islatzen du, adin-taldean eta sexuaren arabera.

### Minbiziaren intzidentzia-tasa (100 000ko) 10 kokapen ohikoenetan, adin-talde handien eta sexuaren arabera. Bizkaia 2015


#### Gizonak

##### 20-49 urte




#### Emakumeak


##### 20-49 urte




##### 50-69 urte




##### 50-69 urte



##### 70 urte eta gehiago



##### 70 urte eta gehiago



KOM: Kolon-ondesteko minbizia, HL: Hodgkin linfoma; EHL: Ez Hodgkin linfoma; LMA: Leuzemia Mieloide Akutua; LMK: Leuzemia mieloide kronikoa; SMP: Sindrome mieloproliferatiboa; SMD: Sindrome mielodisplasikoa.


Iturria: RCEME

Minbizia heriotza-kausua nagusia da gizonezkoen artean (heriotzen %36) eta bigarren zergatia emakumezkoetan (heriotzen %23); 2017. urtean 2049 gizon (377,73/ 100 000) eta 1034 emakume (22,64/ 100 000) hil ziren minbiziaren ondorioz. Hurrengo grafikoan heriotza maiztasun erlatiboa ikus daiteke, sexu eta kokapenaren arabera.




## Minbiziak eragindako hilkortasuna. Maiztasun-erlatiboa kokapen eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

### Gizonak



### Emakumeak



Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Gizonetan tasa estandarizatuen arrazoi, hau da, minbizi pairatzeko arrisku erlatiboa, nabarmenki igotzen da tumore-kokapen guztietan maila sozioekonomikoa gutxituz gero, II mailako %2tik, gabezia handieneko V. mailako %18ra. Emakumezkoetan ez da horrelako loturarik ikusi.

## Minbizi kokapen guztietan. Kasu kopurua eta tasen arrazoi estandarizatua gabezia-indizearen arabera. Bizkaia 2011-2015

Gabezia-indizea	Gizonak					Emakumeak				
	Kasuak	TEE	TEA	KT %95		Kasuak	TEE	TEA	KT %95	
<b>I (aberatsena)</b>	4305	779,38	1			3408	453,40	1		
<b>II</b>	3395	797,66	1,02	1,01	1,04	2466	436,34	0,96	0,91	1,01
<b>III</b>	3980	838,40	1,08	1,06	1,09	2749	448,78	0,99	0,94	1,04
<b>IV</b>	4584	843,80	1,08	1,07	1,10	3079	442,21	0,98	0,93	1,03
<b>V (txiroena)</b>	5643	917,57	1,18	1,16	1,19	3464	441,38	0,97	0,93	1,02

TEA: Adinaren arabera estandarizatutako tasen Arrazoi

Iturria: RCEME

Kokapenei dagokienez, gizonetan, aho-faringe, hestegorri, urdail, kolon-hondeste, gibel, birika, gernu-maskuria eta giltzurrunetako minbizek intzidentzia nabarmenki altuagoa aurkezten dute maila sozioekonomiko baxuetan. Emakumeetan, gertaera hori hurrengo kokapenetan ematen da: urdail, gibel, gernu-maskuria, giltzurrun eta hematologikoetan (sindrome mieloproliferatibo (ez LMK) eta mielodisplasikoetan).

Larruzaleko melanoma, emakumeen bular-minbizi eta prostatako minbiziaren kasuan kontrako efektua ikusi da, goiko maila sozioekonomikoetan intzidentzia altuagoa baita. Beste kokapenetan ez da loturarik ikusi.


## Minbiziaren intzidentzia gabezia-indize eta sexuaren arabera, kokapen zehatzetan. Bizkaia. 2011-2015

I (aberatsena),  
II, III, IV,  
V (txiroena) } Gabezia  
Indizea


■ Gizonak  
■ Emakumeak

TEE: Tasa Estandarizatu  
adinaren arabera


**Kokapen guztiak**




**Kokapen guztiak**




**Aho-faringea**




**Hestegorria**




**Urdaila**




**KOM**




**Gibela**




**Laringea**




**Birikak**




**Gernu-maskuria**




**Giltzurruna**




**Prostata**




**Melanoma**




**Urdaila**




**Gibela**




**Birikak**




**Gernu-maskuria**




**Giltzurruna**




**S.Mielodisplasioa**




**S.Mieloproliferatiboa Bularra**



**Bularra**




**Melanoma**




Minbiziaren IEA (Intzidentzia-Estandarizatuaren Arrazoa), nabarmenki altuagoa izan da Bizkaiko gizonetan EAeko gizonetan baino. ESlei dagokienez, Barakaldo-Sestao ESiko gizonak eta Bilbao-Basurtu ESiko bi sexuek intzidentzia esanguratsuki handiagoa aurkeztu dute. EHA (Estandarizatutako Hilkortasun-Arrazoa) altuagoa da Barakaldo-Sestao ESiko gizonetan, eta baxuagoa Barrualde-Galdakao ESikoetan.

### Kokapen guztietako minbiziaren intzidentzia estandarizatuaren arrazoa, sexu eta ESlen arabera, Bizkaia 2015

#### Gizonak




#### Emakumeak



Iturria: RCEME

Gizonezkoetan intzidentzia urtero %0,6 handitu zen 2000tik 2013ra. 2013tik aurrera aldaketa esanguratsua egon zen, urteroko %5,9ko jaitzierarekin. Emakumezkoetan intzidentziak goranzko joera esanguratsua izan du, urtero %1,5ko igoera izanik. Hilkortasunaren joera ere antzekoa da, baina gizonezkoetan 2012tik izandako jaitziera leunagoa izan da (%1,9 urteko).


### Kokapen guztietako minbizi intzidentziaren bilakaera sexuaren arabera, Bizkaia, 2000-2015



Iturria: RCEME

Hurrengo grafikoan minbiziaren intzidentziaren joera eta UAP (Urteroko Aldaketa Portzentajea) erakusten dira, sexu bakoitzeko kokapen garrantzitsuetan. UAPren kolore gorriak aldaketa esanguratsua dela adierazten du.

**Kokapen zehaztetako minbizi intzidentziaren denborazko bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Urteroko aldaketa-portzentaia (UAP) RCEME. Bizkaia. 2000-2015**




\* UAP gorriz: esanguratsua UAP beltzez: ez esanguratsua

### 3.2.1. Kolon eta ondesteko minbizia (KOM). (C18-C20)


2015ean 651 KOM diagnostikatu ziren gizonetan eta 409 emakumeetan. Baheketa programan 194 minbizi diagnostikatu ziren (%19). KOMren ondorioz 269 gizon eta 199 emakume hil ziren.

#### Kasu kopurua eta intzidentzia-tasa, adin-talde eta sexuaren arabera, Bizkaia 2015

##### Gizonak



##### Emakumeak




Iturria: RCEME


Intzidentziak 2013an joera aldaketa esanguratsu bat aurkezten du eta urte horretatik aurrera, beherantza doa bi sexuetan. Hilkortasun tasa gutxitu egin da gizonetan denboraldi osoan zehar, 2011tik aurrera beherakada nabarmenago bat aurkeztuz; emakumeetan, aldiz, egonkorra da.

#### Kasu kopurua, intzidentzia eta hilkortasun tasa estandarizatua. (Joinpoint bidezko doikuntza), Bizkaia 2000-2015

##### Gizonak



##### Emakumeak




Iturria: RCEME

### 3.2.2. Bularreko minzibia. (C50)

2015ean bularreko minbiziaren 884 kasu erregistratu ziren; 265 minbizi (%30) baheketa programaren bidez diagnostikatu ziren, eta 64 (%7) tarteko minbiziak ziren, hau da, bi baheketa desberdinen artean diagnostikatutakoak. 201 pertsona hil ziren minbizi honen ondorioz.


50-64 urte bitarteko emakumeei zuzendutako baheketa programa, 69 urtera artekoentzat zabaldu zen 2006an. 2000 eta 2015 artean bularreko minbizien %25 (3808) baheketa programan diagnostikatu zen, %55 programaren helburu diren adinetan arreta jarrita.

**Kasu kopurua eta intzidentzia-tasa adin-taldearen arabera. Bizkaia 2015**



Iturria: RCEME

**Kasu kopurua, intzidentzia eta hilkortasun tasa estandarizatu (Joinpoint). Bizkaia 2000-2015**




Urtero %1,3 handitu da intzidentzia, eta hilkortasuna %1,4 gutxitu. Intzidentziaren gorakada nabarmenagoa izan da 65-69 urte bitarteko emakumeetan.

### 3.2.3. Biriketako minbizia. (C33-C34)


2015ean biriketako 654 minbizi erregistratu ziren gizonetan, eta 215 emakumeetan. Emakumeen %53k eta gizonen %38k 65 urte baino gutxiago zuten.

**Intzidentziaren bilakaera. Tasa gordinak (Joinpoint bidezko doikuntza) adin-taldearen arabera. Tasa Estandarizatu (Joinpoint), Bizkaia 2000-2015**

#### Gizonak



#### Emakumeak



TC: Tasa gordin (Joinpoint bidezko doikuntza) TE (Joinpoint bidezko doikuntza)

\* UAP: urteroko aldaketa-portzentaje esanguratsua

Iturria: RCEME

Biriketako minbiziaren intzidentzia egonkor mantentzen da gizonetan eta gorako joera erakusten du emakumeetan. Adin taldeei dagokienez, aipatzekoa da 45 urte baino gehiagokoen goranzko joera nabarmena. Hilkortasunak intzidentziaren antzeko joera dauka.


### 3.3. Gaixotasun kardiobaskularrak. (GNS-10: I00-I99)

2017an 17 821 ospitaleratze egon ziren gaixotasun kardiobaskularrangatik Bizkaiko egoiliarren artean (15,64/100 000ko). Bizkaian, gaixotasun kardiobaskularrak lehenengo heriotza kausa izan ziren emakumeetan (%29), eta gizonetan bigarrena (%26), 3259 heriotzekin.


Hilkortasunaren eta ospitaleratze-maiztasunaren kausa nagusienak garun hodietako gaixotasuna, kardiopatia iskemikoa eta gutxiegitasun kardiakoa dira. Kausa-talde bakoitzari dagokion proportzioa desberdina da gizon zein emakumeetan, eta baita ospitale erikortasuna eta hilkortasuna ere.

#### Zirkulazio-sistemaren gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: I00-I99). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak




GH: (I10-I15) Gaixot. hipertentsiboak  
 GI: (I20-I25) Bihotzeko gaixot. iskemikoak  
 BAL: (I30-I43) Perikarditis, endokar., miokar., balbuletako tr.  
 Arrit.: (I44-I49) Eroapen trastorno eta arritmiak  
 BG: (I50) Bihotzeko gutxiegitasuna  
 GZB: (I60-I69) Gaixotasun zerebrobaskularrak

Beste batzuk: (I00-I09) S. Erreumatikoa; (I26-I28) Bihotz-biriketako gaixotasuna eta birika-zirkulazioko gaixotasuna; (I51-I52) Bihotzeko beste gaixotasunak; (I70-I79) Arteria, arteriola eta kapilarren gaixotasunak; (I80-I99) Zirkulazio-sistemaren beste gaixotasunak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hilkortasun tasa esanguratsuki handiagoa da gizonetan emakumeetan baino, talde gehienetan: bihotzeko gaixotasun iskemikoak, balbuletako gaitzak, bihotzeko gutxiegitasuna, gaixotasun zerebrobaskularra eta arteria eta arterioletako gaixotasunak.

**Gaixotasun kardiobaskular taldeetako hilkortasun tasa estandarizatuak sexuaren arabera. %95eko konfidantza tarteak. Bizkaia 2017**



GH: (I10-I15) Gaixot. hipertentsiboak GI: (I20-I25) Bihotzeko gaixot. iskemikoak BAL: (I30-I43) Perikarditis, endokar., miokar., balbuletako tr. Arrit.: (I44-I49) Eroapen trastorno eta aritmiak BG: (I50) Bihotzeko gutxiegitasuna GZB: (I60-I69) Gaixotasun zerebrobaskularrak


Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan bihotzeko gaixotasun iskemikoen (GI)(miokardioko infartua barne) eta gaixotasun zerebrobaskularren (GZB) ezaugarri aipagarrienak deskribatzen dira.


EDBtik ateratako datuen arabera, 2017an 28 574 bizkaitarrek bihotzeko gaixotasun iskemikoa zuten, gizonen %3,5 eta emakumeen %1,4, eta 44 224 pertsonak gaixotasun zerebrobaskularra (%3,7).

**Gaixotasun kardiobaskular zehatzetako prebalentzia (%), adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017**

**Bihotzeko gaixotasun iskemikoa**



**Gaix. zerebrobaskularra**



■ Kasuak gizon. — Prebalentzia tasa gizon. ■ Kasuak emakume. — Prebalentzia tasa emakumeetan

Iturria: Osakidetza. EDB

Emakumeen hilkortasun gordinak gaixotasun batzuetan gizonena gainditzen duen arren, adinaren arabera estandarizatu gero gizonen tasak emakumeen tasen gainetik daude gaixotasun guztietan, bai ospitaleratze-maiztasunean zein hilkortasunean.



Bihotzeko gaixotasun iskemikoaren ondorioz ingresatu edo hildako pertsonen herenak miokardioko infartu akutua (MIA) izan zuen.

Gaixotasun zerebrobaskularrengatiko ospitaleratzeen gehiengoa GZB iskemikoagatik izan zen. GHG hemorragikoaren hilkortasun estandarizatuak GZB iskemikoarena baino altuagoa da.

### Gaixotasun kardiobaskular zehatzetako ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak 100 000ko. Bizkaia 2017

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Kardiopatia iskemikoa	Gizonak	385,84	370,21*	84,79	86,49*
	Emakumeak	131,30	100,94	50,93	31,87
Miokardioko infartu akutua	Gizonak	136,21	128,56*	26,44	26,12*
	Emakumeak	49,58	35,97	21,15	13,06
GZB hemorragikoa	Gizonak	64,55	61,96*	24,25	23,72*
	Emakumeak	41,96	32,60	17,60	12,05
GZB iskemikoa	Gizonak	200,76	197,99*	14,59	15,82
	Emakumeak	166,15	110,61	20,81	11,25
GZB guztira	Gizonak	292,67	285,77*	56,53	58,44*
	Emakumeak	241,79	171,81	70,39	41,16


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Ospitaleratze-maiztasun tasak handiagoak dira gizonetan, adin guztietan. Bihotzeko gaixotasun iskemikoan gizonetan gehienezko balorea 75 urtetan gertatzen da, baina emakumeetan gorantz jarraitzen du, baita 85 urte eta gehiagokoen adin taldean ere. GZBan, aldiz, maiztasuna adinarekin batera handitzen da bi sexuetan.

### Gaixotasun kardiobaskular zehatzetako ospitaleratze-maiztasuna (100 000ko) adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

#### Bihotzeko gaixotasun iskemikoa



#### Gaixotasun zerebrobaskularra




Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Gabezia sozioekonomikoaren indizea zenbat eta handiagoa izan (pobrezia handiagoa) orduan eta tasa altuagoa, bihotzeko gaixotasun iskemikoagatik ospitaleratze-maiztasunean.


## Kardiopatia iskemiokoagatik ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatu (100 000ko) gabezia-indize eta sexuaren arabera.

Bizkaia 2017

KI - Gizonak



KI - Emakumeak



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM


MIA eta GZBaren hilkortasuna gutxitu egin da Bizkaian gizon zein emakumeetan, eta baita Klren eta GHGren ospitaleratze-maiztasuna ere.

## Gaixotasun kardiobaskular zehaztutako ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasunaren bilakaera sexuaren arabera. (Joinpoint bidezko doikuntza).


Bizkaia 2000-2017

### Ospitaleratze-maiztasuna

Bihotzeko gaixotasun iskemikoa (GNS 10:I20-I25)




Gaixotasun zerebrobaskularra (GNS 10:I60-I69)




### Hilkortasuna

Miokardioko infartu akutua (GNS 10:I21)



Gaixotasun zerebrobaskularra (GNS 10:I60-I69)



— Gizonak — Emakumeak \* UAP gorritz: esanguratsua UAP beltzez: ez esanguratsua

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

ESI bakoitzaren hilkortasuna behatzean, Barrualde-Galdakao ESiko emakumeek Bizkaiko emakumeek baino hilkortasun handiagoa dute gaixotasun kardiobaskularrengatik.


### 3.4. Arnas-apatutuko gaixotasunak. (GNS-10: J00-J99)

2017an arnas-apatutuko gaixotasunengatik 16 340 ospitaleratze egon ziren Bizkaian, gizonetan (%55) ospitaleratze gehiago egon ziren emakumeetan baino. Ospitaleratze kausa-talde nagusiak beheko arnas bideetako gaixotasun kronikoak, gripea, neumonia eta goiko arnas bideetako beste gaixotasun batzuk izan ziren.


Arnas-apatutuko gaixotasunek 2017an hilkortasunaren %11 (1303 hildako) eragin zuten, gehiengoak BGBKagatik, gripegatik, neumoniagatik eta beste arnas gaixotasun batzuegatik. Arnas-apatutuko gaixotasunen multzoaren azpitalde bakoitzaren hilkortasun tasa nabarmenki handiagoa da beti gizonetan.

#### Arnas-apatutuko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: J00-J99). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



NEU: (J09-J18) Gripea eta pneumonia

I-BA: (J20-J22) Beheko arnasbideetako beste infekzio akutu batzuk

I-GA: (J30-J39) Goiko arnas bideetako beste gaix. batzuk

BGBK: (J40-J47) Beheko arnas bideetako gaix. kronikoak (BGBK)

KA: (J60-J70) Biriketako gaixotasunak, kanpoko agenteek sortuak

INTERS: (J80-J84) Beste arnas gaixotasun batzuk, batez ere interstizioa afektatzen dutenak

Beste batzuk: (J00-J06) Goiko arnas bideetako infekzio akutuak; (J85-J86) Beheko arnas bideetako zorne-jario eta nekrosi-egoerak; (J90-J94) Pleurako beste gaixotasun batzuk; (J95-J99) Arnas sistemako beste gaixotasun batzuk

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan arnas bideetako hurrengo gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusienak deskribatzen dira: BGBK (GNS 10: J40-J44; J47) eta asma (GNS 10: J45-J46).

BGBK zuten 31 963 bizkaitar zeuden 2017an. Prebalentzia ia bikoitza izan zen gizonetan (%3,5) emakumeetan baino (%2). BGBKren prebalentzia adinarekin batera igotzen da, laurogei urte eta gehiago zuten gizonetan %16ra heldu zelarik.

BGBKgatiko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasak hiru aldiz handiagoak dira gizonetan emakumeetan baino. Asmaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasak, aldiz, kontrariatuagoak izan ziren emakumeetan.

### BGBKren eta asmaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna (J40-J44; J47). Tasa gordinak eta estandarizatuak 100 000ko. Bizkaia 2017


BGBK		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
J40-J44;J47	Gizonak	357,22	353,47*	45,22	45,75*
	Emakumeak	128,76	99,15	15,74	9,68
Asma J45-J46	Gizonak	45,59	45,84	2,19	2,21
	Emakumeak	108,46	88,58*	9,64	5,78*

\* Gizonak eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

BGBKgatiko ospitaleratzeak adinarekin areagotzen dira, maximoa 85 urte baino gehiagoko gizonetan kokatuz. Asmaren kasuan, ospitaleratzeen tasak erpin bat dauka umetan eta horren, ostean adinarekin handituz doa.

### BGBK eta asmaren ospitaleratze-maiztasuna adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017




Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM


Gizonetan gabezia sozioekonomikoaren indizearen (GI) eta BGBKren ondoriozko ospitaleratzeen arteko loturen bada gradiente bat: GI zenbat eta altuagoa izan (pobrezia gehiago), orduan eta ospitaleratze tasa altuagoa. Emakumeetan lotura hori asmaren ospitaleratze-maiztasun tasaren eta GIren artean gertatzen da.

### BGBKren (gizonetan) eta asmaren (emakumeetan) ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak (100 000ko) gabezia-indizearen arabera

#### BGBK - Gizonak




#### Asma - Emakumeak



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESiko gizonak eta Bilbao-Basurtu ESiko emakumeek BGBKgatiko prebalentzia eta ospitaleratze-maiztasun altuagoak aurkezten dituzte.

### ESlen araberako BGBKren prebalentzia (%) bi sexuetan. Bizkaia 2017



Iturria: Osakidetza. EDB

### BGBKren ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak (100.000ko) sexu eta ESiren arabera. Bizkaia 2017

	Gizonak	Emakumeak
Tasa estandarizatuak		
Barakaldo-Sestao	305,70	82,42
Barrualdea-Galdakao	318,68	83,85
Bilbo-Basurtu	351,67	124,86*
Ezkerraldea Enkart. Gurutz.	447,29*	95,92
Uribe	352,47	82,24
<b>BIZKAIA</b>	<b>353,47</b>	<b>99,15</b>

\* Bizkaikoarekin konparatuta esanguratsuki desberdina


Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

BGBKk eragindako ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna beherantz doaz, batez ere gizonekoetan. Asmagatik maiztasuna gizonetan jaitsi egin da, eta hilkortasuna igo egin da emakumeetan.


### BGBK eta asmaren ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasunaren bilakaera sexuaren arabera. (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017

#### Ospitaleratze-maiztasuna

**BGBK**  
(GNS 10: J40-J44, J47)




**Asma**  
(GNS 10: J45-J46)




#### Hilkortasuna

**BGBK**  
(GNS 10: J40-J44, J47)



**Asma**  
(GNS 10: J45-J46)



— Gizonak — Emakumeak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


### 3.5. Digestio-aparatuko gaixotasunak. (GNS-10: K00-K95)

Digestio-aparatuko gaixotasunengatik 20 119 ospitale-alta eman ziren Bizkaian 2017an, gizonetan (%58) emakumeetan baino gehiago. Ospitaleratze gehienak hurrengo kausengatik izan ziren: herniak, hesteetako beste gaixotasunak, behazun-xixkuaren gaitzak eta pankreako arazoak.


Bizkaian bizi ziren 513 pertsona hil ziren urte berean digestio-aparatuko gaixotasunengatik. Gehienak gibelesko gaixotasunak zituzten gizonak ziren. Emakumeen artean digestio-aparatuko beste gaixotasun batzuk izan ziren heriotz gehien eragin zituztenak. Digestio-aparatuko gaixotasunen hilkortasun tasa estandarizatuak modu egonkorrean gutxitu dira 2000. urtetik bi sexuetan.

#### Digestio-aparatuko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasun maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: K00-K95). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



AHO: (K00-K14) Aho-barrunbe, listu-guruin eta masailezurretako gaixotasunak  
 HUD: (K20-K31) Hestegorri, urdail eta duodenoko gaixot.  
 APEN: (K35-K38) Apendizeko gaixot.  
 HER: (K40-K46) Hernia  
 HEP: (K70-K77) Gibelesko gaixotasunak

BEHA: (K80-K87) Behazun-xixkuko, behazunbideetako eta pankreako trastornoak  
 Beste batzuk: (K50-K52) Enteritis eta kolitis ez-infekziosoa; (K55-K64) Hesteetako beste gaixotasun batzuk; (K65-K68) Peritoneoko gaixotasunak; (K90-K95) Digestio-aparatuko beste gaixotasun batzuk

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo grafiko eta tauletan gibelesko zirrosiaren ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira (K70, K73, K74, K76.9).

Zirrosiak erangindako maiztasunak adinarekin gora egiten du, baina zenbaki absolutu handiena 50-74 bitarteko gizonetan gertatzen da.

Gizonezkoetan zirrosiagatik ospitaleratze-maiztasun tasa laukoizten da emakumeekin konparatuta eta kausa berdinagatik hilkortasuna hirukoiztu egiten da. Zirrosi alkoholikoaren kasuan, oraindik ere handiagoak dira gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak.

## Gibeleko zirrosiaren ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasuna. Tasa gordin eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Zirrosi alkoholikoa	Gizonak	50,33	46,26*	4,01	3,69*
	Emakumeak	5,75	4,99	0,68	0,55
Beste zirrosi batzuk	Gizonak	16,78	15,66*	10,21	9,83*
	Emakumeak	9,81	7,65	4,23	3,41
Guztira	Gizonak	67,10	61,92*	14,22	13,53*
	Emakumeak	15,57	11,47	4,91	3,67

\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Zirrosiak eragindako ospitaleratze-maiztasuna aztertuta, Bilbo Basurtuko gizonen tasa altuagoak dituzte Bizkaikoek baino, eta alde hori estatistikoki eranguratsua da. Aldiz, Barrualde-Galdakaokoek eta Uribekoek tasa txikiagoak dituzte Bizkaiko gizonekin alderatuta. Hilkortasunean ez da alderik ikusten ESlen artean

## Zirrosiaren ospitaleratze-maiztasuna tasa estandarizatuak (100 000ko) Bizkaiko ESletan, 2017

	Gizonak	Emakumeak
	Tasa estandarizatuak	
Barakaldo-Sestao	81,63	10,05
Barrualdea-Galdakao	34,44*	10,92
Bilbo-Basurtu	90,29*	18,44
Ezkerraldea-Enkartz.-Gurutz.	73,17	15,91
Uribe	33,18*	10,98
BIZKAIA	61,92	13,65

\* Bizkaikoarekin konparatuta esanguratsuki desberdina


Iturria: DGOM

Zirrosiagatiko ospitaleratze-maiztasun eta hilkortasun tasen joera nabarmenki beheranzkoa da bi sexuetan.

## Zirrosiaren ospitaleratze-maiztasunaren eta hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017

### Ospitaleratze-maizt.


Zirrosia  
(GNS 10: K70, K73, K74, K769)



— Gizonak — Emakumeak

### Hilkortasuna

Zirrosia  
(GNS 10: K70, K73, K74, K769)



\* UAP gorritz: esanguratsua UAP beltzez: ez

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


### 3.6. Trastorno mentalak eta portaerarenak. (F01-F99)

Trastorno mental eta portaeraren gaixotasunak direla eta 2017an 4385 ospitaleratze egon ziren Bizkaian, 3,85/1000 tasa. Ospitaleratze gehien eragin zituzten taldeak hurrengoak dira: eskizofrenia, trastorno eskizotipal eta deliriozkoak, afektibitate-trastornoak eta substantzia psikoaktiboen erabilerak sortutako trastornoak.


Trastorno mentalen hilkortasuna F01-F09 (trastorno mental organikoak) taldera mugatzen da ia soilik.

#### Trastorno mental eta portaeraren trastornoen ospitaleratze eta hilkortasun maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: F01-F99). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



DEM: (F01-F09) Trast. mental organikoak  
 SUST: (F10-F19) Adim. eta port. trast. subs. psiko.  
 ESK: (F20-F29) Eskizofr., tr. eskizotipalak eta deliriozko tr.  
 AFEK: (F30-F39) Trastorno afektiboak  
 NEU: (F40-F48) Trastorno neuropatikoak  
 NOR: (F60-F69) Nortasun eta portaeraren tr.


Beste batzuk: (F50-F59) Nahaste fisiologikoekin lotuak; (F70-F79) Adimen-atzeratasuna; (F80-F89) Garapen psikologikoaren trastornoak; (F90-F99) Haurtzaro eta nerabezaroko tr.

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Dementzien, substantzia psikoaktiboen erabilerak sortutako trastornoen eta eskizofrenia /trastorno-eskizotipalen maiztasun tasak altuagoak dira gizonetan, eta afektibitate-trastornoen, neuropatikoaren eta nortasun-portaeraren trastornoen maiztasunak altuagoak dira emakumeetan.



## Trastorno mentalen talde desberdinen ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak sexu bakoitzean. %95eko konfiantza-tartea. Bizkaia 2017



Dem: Demetziak (F01-09); Sust: Substantzia psikoaktiboaren erabilera sortutako trastornoak (F10-19); Esk: Eskizofr., tr. eskizotipalak eta deliriozko tr. (F20-29); Afek: Trastorno afektiboak (F30-39); Neu: Trastorno neuropatikoak (F40-48); Nor: Nortasun eta portaeraren tr. (F60-69)


Iturria: Hilkortasun Erregistroa

Hurrengo taula eta grafikoetan ondorengo gaixotasun mental eta portaeraren gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira: trastorno mental organikoak (F01-F09), eskizofrenia (F20) eta trastorno afektiboak (F30-F39), espezifikoki trastorno bipolarra (F31) eta depresioa (F32-F33).


Eskizofreniaren prebalentzia %6koa eta %4koa izan zen gizon eta emakumeetan, hurrenez hurren, 2017an. Urte berean 107 731 bizkaitarrek (%9) depresioa diagnostikatu zuten, haietako bi heren emakumeak izanik. Depresioaren prebalentzia %30koa izatera heltzen da 80 urte baino gehiagoko emakumeetan.

## Eskizofrenia (%) eta depresioaren (%) kasu kopurua eta prebalentzia adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

### Eskizofrenia



### Depresioa (F32-F33)



Iturria: Osakidetza. EDB

Afektibitate trastornoren eta eskizofreniaren ondorioz ia ez da heriotzarik gertatzen. Eskizofreniagatiko ospitaleratze-maiztasuna handiagoa da gizonetan, eta afektibitate trastornorena emakumeetan (talde honetan trastorno bipolarrak izaten dira kausa nagusia). Trastorno mentalen hilkortasun gordina altuagoa da emakumeetan gizonetan baino, baina adinaren arabera estandarizatuz gero tasak berdintu egiten dira.

**Ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna trastorno mental organikoetan,  
eskizofrenian eta trastorno afektiboetan.  
Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017**

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Tras. mental organikoak	<b>Gizonak</b>	22,25	21,18	42,85	47,35
	<b>Emakumeak</b>	21,83	14,84	91,88	49,00
Eskizofrenia	<b>Gizonak</b>	93,54	88,20*	0,36	0,33
	<b>Emakumeak</b>	39,09	37,55	0,85	0,59
Trastorno bipolarra	<b>Gizonak</b>	36,10	35,09	--	-----
	<b>Emakumeak</b>	43,48	41,05	--	-----
Depresioa	<b>Gizonak</b>	32,82	31,15	--	-----
	<b>Emakumeak</b>	59,39	55,36*	--	-----
Trastorno afektiboak	<b>Gizonak</b>	76,22	73,17	--	-----
	<b>Emakumeak</b>	115,90	108,25*	--	-----


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Trastorno mental organikoek eragindako ospitaleratze-maiztasun handiena gizon nagusietan gertatzen da; gizon gazteek maiztasun altuagoa erakusten dute eskizofrenian; emakume gazteek maiztasun gehiago dute afektibitate-trastornoetan.

**Trastorno mental organikoen, eskizofreniaren eta afektibitate trastornoen  
(bipolar eta depresioa) ospitaleratze-maiztasuna adin eta sexuaren arabera.  
Bizkaia 2017**


**Trast. mental organikoak  
(GNS-10: F00-F09)**




**Eskizofrenia  
(GNS-10: F20)**



**Trast. afektibo bipolarra  
(GNS-10:F31)**



**Trast. afektibo depresioa  
(GNS-10: F32-F33)**




Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM


Gabezia-indizea zenbat eta altuagoa izan (pobrezia gehiago), eskizofreniaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasuna altuagoa da. Ez da Giren eta trastorno afektiboen arteko loturarik antzeman.

### Eskizofreniaren ospitaleratze-maiztasun tasa estandariztua gabezia-indize eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

Gizonak



Emakumeak



Erreferentziako biztanleria: 2013ko Europakoa

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Trastorno afektiboen ospitaleratze-maiztasuna esanguratsuki altuagoa da Bilbo-Basurtu ESiko gizonetan.

### Trastorno afektiboen ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak sexu eta ESlaren arabera (100 000ko). Bizkaia 2017

	Gizonak	Emakumeak
<b>Tasa estandariztua</b>		
Barakaldo-Sestao	77,48	85,32
Barrualdea-Galdakao	62,46	87,41
Bilbo-Basurtu	99,14*	119,05
Ezkerraldea-Enkart.-Gurutz.	56,20	123,81
Uribe	61,95	121,56
<b>BIZKAIA</b>	<b>73,17</b>	<b>108,25</b>


\* Bizkaikoarekin konparatuta esanguratsuki desberdina

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

2000 eta 2017 bitartean trastorno mental organikoen hilkortasun tasek gorakada leun bat erakusten dute bi sexuetan.

### Trastorno mental organikoen hilkortasunaren bilakaera sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017

Trastorno mental organikoak



Iturria: Hilkortasun Erregistroa


### 3.7. Nerbio-sistemako gaixotasunak. (G00-G99)

2017an nerbio-sistemako (NS) gaixotasunen ondorioz 3991 ospitaleratze egon ziren Bizkaian; emakume gehiago (%55) ospitaleratu ziren. Gizonetan ospitaleratze gehien eragin zituzten taldeak trastorno episodiko paroxistikoak izan ziren, heren bat epilepsia izanik; emakumeetan ospitaleratze gehienek nerbio, sustrai eta nerbio-plexuen trastornoekin zerikusia izan zuten (%89 karmo-tuneleko sindromea).


Heriotzak eragin zituzten gaixotasunak endekapenezkoak izan ziren (Alzheimer batez ere) eta trastorno estrapiramidaleak eta mugimenduzkoak (Parkinson batez ere).

#### Nerbio-sistemako gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: G00-G99). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



INFLA: (G00-G09) NSZko gaixotasun inflamatorioak  
 ATRO: (G10-G14) NSZko atrofia sistemikoak  
 ESTRAPIR: (G20-G26) Trast. extrapiramidalak eta mugimendukoak  
 ENDEK: (G30-G32) NSko bestelako endekapen-gaix. batzuk  
 PAROX: (G40-G47) Trast. Episodiko eta paroxistikoak  
 NER: (G50-G59) Nerbioen, nerbio-sustraien eta plexuen trast.

Beste batzuk: (G35-G37) NSZko gaixotasun desmielinizatzaileak; (G60-G65): Polineuropatiak eta NSParen beste trast. batzuk; (G70-G73) Juntura mioneuralaren eta muskuluaren gaixotasunak; (G80-G83) Garuneko paralisia eta beste sindrome paralitiko batzuk; (G89-G99) NSko beste trast. batzuk

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


NSko gaixotasunek eragindako hilkortasuna 2000. urtetik aurrera handitzen doa bi sexuetan. Ez da ESlen arteko desberdintasunik ikusi kausa hauengatik izandako hilkortasunean.

Hurrengo taula eta grafikoetan NSko hurrengo gaixotasunen ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira: Alzheimer (G30) eta Parkinson (G20) gaixotasuna.


EDBko datuen arabera, 2017an Bizkaian 10 476 pertsonak zuten Alzheimerra, hirutik bi emakumeak zirela. Parkinsonaren prebalentzia 7997 pertsonakoa zen.

### Alzheimer-en gaixotasuna eta Parkinson-en gaixotasuna. Prebalentzia (%) adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

Alzheimer-en gaixot.



Parkinson-en gaixot.



Iturria: Osakidetza, EDB.

Alzheimerren ondoriozko ospitaleratze-maiztasuna baxua da; hilkortasuna, berriz, altuagoa, batez ere emakumeetan. Parkinsonaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna handiagoak dira gizonetan, emakumeekin konparatuta.

### Alzheimer-en gaixotasuna eta Parkinson-en gaixotasunaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Alzheimer-en gaixotasuna	Gizonak	3,28	3,28	16,96	17,44
	Emakumeak	2,37	1,51	42,47	24,13
Parkinson-en gaixotasuna	Gizonak	11,49	11,08*	14,95	14,81*
	Emakumeak	5,08	4,27	12,52	7,64


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Hilkortasuna nahiko egonkor mantentzen da Alzheimer eta Parkinson gaixotasunetan.

### Alzheimer-en gaixotasuna eta Parkinson-en gaixotasunaren hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017

Alzheimer-en gaixot.



Parkinson-en gaixot.



Iturria: Hilkortasun Erregistroa


### 3.8. Gaixotasun endokrino, nutrizional eta metabolikoak. (GNS-10: E00-E89)

Gaixotasun endokrinoen ondorioz 2053 ospitaleratze eta 310 heriotz egon ziren Bizkaian 2017an. Maiztasun erlatibo altueneko taldeak dira diabetes mellitusa, trastorno metabolikoak eta hiper-elikadura trastornoak.


Diabetea da taldeko hilkortasunaren kausa nagusia, eta ondoren trastorno metabolikoak doaz.

#### Talde endokrinoko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: E00-E89). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



TIR: (E00-E07) Tiroide guruineko trastornoak  
DM: (E08-E14) Diabetes mellitus-a  
GLU: (E15-E16) Glukosa-erregulazioaren eta pankreako barne-jariaketaren bestelako trast. batzuk  
MALNU: (E40-E64) Malnutrizioa eta bestelako nutrizio-eskasia batzuk

OBES: (E65-E68) Obesitatea eta bestelako hiper-elikadura batzuk  
METAB: (E70-E88) Trastorno metabolikoak  
Beste batzuk: (E20-E35) Beste guruin endokrino batzuen trastornoak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


Diabetesaren ondoriozko ospitaleratze-maiztasun tasak esanguratsuki handiagoak dira gizonetan. Aldiz, tiroide-guruinaren trastornoen, obesitatearen eta hiper-elikadura trastornoen ondoriozkoak handiagoak dira emakumeetan.

Hurrengo taula eta grafikotan diabetes mellitusaren (DM) (E10-E14) ezaugarri epidemiologiko nagusiak deskribatzen dira.


Bizkaiko DMaren prebalentzia 2017an %8 izan zen gizonetan eta %6 emakumeetan (81 402 diabetiko). Adinarekin igotzen da, 75 eta 84 urte bitarteko gizonetan %27ra heltzen delarik.

## DM duten pertsonen prebalentzia, kopuru eta maiztasuna (%) eta ospitaleratze-maiztasun tasa DM dela eta (100 000ko), adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

### Prebalentzia



### Ospitaleratze-maiztasuna



Iturria: Osakidetza, EDB. Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Ospitaleratze-tasak esanguratsuki altuagoak dira gizonetan eta nahiz eta DMaren hilkortasun tasa gordina emakumeetan altuagoa izan, adinaren araberako estandarizazioa egitean gizonetan altuagoa izaten jarraitzen du.

## Diabetes mellitus (DM), ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
Diabetes mellitus	Gizonak	68,38	65,66*	16,78	17,90
	Emakumeak	43,48	32,84	19,12	10,65*


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


DMak ospitaleratze-maiztasunak harreman zuzena dauka gabezia sozioekonomikoko indizearekin (GI), txiroagoak gehiagotan ospitaleratzen direlarik.

## Diabetes mellitusaren ospitaleratze-maiztasunaren tasa estandarizatuak gabezia-indizea eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

### Gizonak




### Emakumeak



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Ezkerraldea-Enkarterri eta Barakaldo-Sestao ESlek dituzte Bizkaiko DMaren prebalentzia altuenak bi sexuetan; Uribe ESik ditu baxuenak.

## Diabetes mellitus-aren prebalentzia (%) gizon eta emakumeetan, ESlen arabera. Bizkaia 2017



DMaren ospitaleratze-tasetan ere ESlen arteko desberdintasunak daude, Uribe ESko emakumeek tasa baxuagoak dituzte, estadistikoki esanguratsuak direnak.

## DMaren ospitaleratze-maiztasun tasa estandarizatuak (100 000ko) sexu eta ESiren arabera. Bizkaia 2017


	Gizonak	Emakumeak
<b>Tasa estandarizatuak</b>		
Barakaldo-Sestao	87,78	42,64
Barrualde-Galdakao	69,48	38,11
Bilbo-Basurtu	61,93	36,46
Ezkerraldea Enkart. Gurutz.	55,74	36,77
Uribe	59,65	21,22*
<b>BIZKAIA</b>	<b>65,66</b>	<b>34,44</b>

\* Bizkaikoarena baino esanguratsuki desberdina

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

DMagatiko ospitaleratze-maiztasunak eta hilkortasunak 2000. urtetik beherakada bat izan dute, emakumeetan beherakada handiagoa eman delarik.

## Diabetes mellitusaren ospitaleratze-maiztasunaren eta hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa




### 3.9. Sistema genitourinarioko gaixotasunak. (GNS-10: N00-N99)

2017an urtean zehar 11 093 ospitaleratze egon ziren Bizkaian kausa genitourinarioengatik, %55 emakumeak. Ospitaleratze gehienak gizonezkoen sexu-organoen gaixotasunengatik eta emakumeen pelbiseko organoen eta bularreko trastornoengatik izan ziren; bi sexuetan bigarren tokian beste gernu-gaixotasunak daude.


326 pertsona hil ziren, %57 emakumeak. Gehiengo giltzurrun-gutxiegitasunagatik eta gernu-traktuko infekzioengatik (N39.0) gertatu zen.

#### Sistema genitourinarioko gaixotasunen ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: N00-N99). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



TUB: (N10-N16) Giltzurruneko gaixotasun tubulo-interstizialak  
GG: (N17-N19) Giltzurrun-gutxiegitasuna  
LIT: (N20-N23) Urolitiasia  
GIZON: (N40-N53) Gizonezkoen organo genitaletako trast.  
BULAR: (N60-N65) Bularreko trastornoak

EMAK: (N70-N98) emakumezkoen organo pelbikoetako gaixotasunak  
Beste batzuk: (N00-N08) Gaixot. glomerularrak; (N25-N29) Giltzurruneko eta ureterreko beste trastorno batzuk; (N30-N39) Gernu-sistemaren beste gaixotasun batzuk; (N99) Sistema genito-urinarioko beste trastorno batzuk

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Bizkaiko ESlen artean ez da alderik ikusi gaixotasun genitourinarioen ondorioz izandako hilkortasunean. 2010. urtetik hilkortasun tasak nahiko egonkor mantentzen dira.

Gizonezkoen sexu-organoen gaixotasunengatik 2076 ospitaleratzeen heren bat prostatako hiperplasiagatik (N40) gertatu zen, eta beste heren fimosiagatik (N47.1). Emakumeen pelbiseko organoen gaixotasunengatik izandako 2754 ospitaleratzeen heren bat emakumezkoen antzutasunaren (N97) ondorioz gertatu zen.

Giltzurrunen gutxiegitasun kronikoaren (GGK) (N18) ezaugarri epidemiologiko garrantzitsuenak ondorengo tauletan eta grafikoetan deskribatzen dira.

GGK dela eta 2017an 278 ospitaleratze eman ziren. GGKren ondoriozko hilkortasuna eta ospitaleratze-maiztasuna altuagoak dira gizonetan, emakumeetan baino; (ospitaleratze-maiztasunaren kasuan estatistikoki esanguratsua).

### Giltzurrun-gutxiegitasunaren ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017

Giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa	Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
	T. gordina	T. estandarizatuak	T. gordina	T. estandarizatuak
<b>Gizonak</b>	35,92	34,26*	7,48	8,21
<b>Emakumeak</b>	13,71	9,10	8,46	4,86


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

GGKren ospitaleratze-maiztasun tasak adinarekin handitzen dira eta gizonetan beti dira handiagoak. 2017an 96 giltzurruneko transplante (GNS-10: 0TY) egin ziren; 64tan diagnostiko nagusia gaixotasun hipertentsiboa zen eta 12tan giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa. 2017an GGKren ondoriozko ospitaleratzeen %58tan bigarren diagnostikoa giltzurrunen dialisi menpekotasuna (GNS-10: Z99.2) zen.

### Giltzurrun-gutxiegitasun kronikoaren ospitaleratze-maiztasuna adin eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017

(GNS-10: N18)




Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM

Ikusten da GGKren ondoriozko hilkortasuna beherantz doala sexu bietan, gizonezkoetan esanguratsudi.

### GGKak eragindako ospitaleratze-maiztasunaren eta hilkortasunaren bilakaera, sexuaren arabera (Joinpoint bidezko doikuntza). Bizkaia 2000-2017


#### Ospitaleratze-maizt.

GGK (GNS 10: N18)



#### Hilkortasuna

GGK (GNS 10: N18)



\* UAP gorri: esanguratsua UAP beltz: ez esanguratsua

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa


### 3.10. Erikortasun eta hilkortasunaren kanpoko arrazoiak. (GNS-10: V00-Y98)

2017. urtean Bizkaian bizi ziren pertsonen 11 964 ospitaleratze egon ziren (%53 gizonezkoak) kanpoko arrazoiengatik. Prozedura mediko eta kirurgikoak (gehienak inplanteak), erorikoak eta "oharkabeko lesio traumatikoen beste kanpoko arrazoi batzuk" taldeak ospitaleratze-kausa ohikoenak izan ziren.


411 pertsona hil ziren (%58 gizonezkoak). Lehenengo kausak "oharkabeko lesio traumatikoen beste kanpoko arrazoi batzuk" (gehienak objektuengatik itota), suizidioak eta erorikoak izan ziren.

#### Kanpoko arrazoiaren ospitaleratzeen eta hilkortasunaren maiztasun-erlatiboa (%) (GNS-10: V00-Y98). Bizkaia 2017


##### Maiztasuna, gizonak




##### Hilkortasuna, gizonak



##### Maiztasuna, emakumeak



##### Hilkortasuna, emakumeak



GARRAI: (V00-V99) Garraio-istripuak  
EROR: (W00-X19) Erorikoak  
B. LESIO: (W20-X59) Oharkabeko lesio traumatikoen beste kanpoko arrazoi batzuk  
SUIZ: (X60-X84) Intenziozko auto-kaltea

KIRURG: (Y83) Prozedura kirurgikoak  
MED: (Y84) Bestelako prozedura mediko batzuk  
Beste batzuk: (X85-Y89) Beste kanpo-arrazoiak; (Y90-Y98) Faktore osagarriak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Kanpoko arrazoiengatik hilkortasun-tasak azkoz altuagoak dira gizonezkoetan, emakumezkoetan baino. Bizkaiko ESlen artean ez da alderik ikusten kanpoko arrazoiak eragindako heriotza-tasetan. Kanpoko arrazoiak direla eta, hilkortasuna jaitsi egin zen 2015era arte, eta urte horretatik tasa igo egin da, batez ere emakumeetan.

Ondorengo taula eta grafikoetan garraio-istripuen (V00-V99), erorikoen (W00-W19) eta suizidioen (X60-X84) erikortasun eta hilkortasunaren ezaugarri epidemiologiko garrantzitsuenak deskribatzen dira.

Gizonezkoen garraio-istripuen ondoriozko ospitaleratze-maiztasunaren tasak emakumezkoena hirukoiztu egiten du. Erorikoek eragindako ospitaleratze-maiztasunean, ez dago alde esanguratsurik gizon zein emakumeen artean, ezta ere kausa biek (istripuak eta erorikoak) eragindako hilkortasunean.

Suizidioagatiko hilkortasuna gizonezkoetan handiagoa da, emakumeen tasa hirukoiztu egiten du gizonenak.

### Garraio-istripu, eroriko eta suizidioen ospitaleratze-maiztasuna eta hilkortasuna. Tasa gordinak eta estandarizatuak (100 000ko). Bizkaia 2017

		Ospitaleratze-maiztasuna		Hilkortasuna	
		T. gordina	T. estandarizatu	T. gordina	T. estandarizatu
Garraio-istripuak	Gizonak	71,66	69,24*	2,55	2,79
	Emakumeak	25,21	23,37	1,69	1,20
Erorikoak	Gizonak	295,58	295,55*	7,66	8,19
	Emakumeak	373,93	257,41	8,46	5,33
Suizidioa/ Suizidio-ahalegina	Gizonak	5,84	5,73	13,49	12,99
	Emakumeak	2,54	2,81	4,06	3,67*


\* Gizon eta emakumeak esanguratsuki desberdinak

Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Garraio-istripuen ondoriozko ospitaleratze-maiztasunak adin guztietan ikusten da, eta erpina du gizon helduetan. Gerorikoek eragindakoa oso txikia da 55 urtera arte, eta adinarekin handitzen da; 84 urte baino gehiagoko emakumeetan %3 izan arte.

Suizidioagatiko hilkortasuna gizon nagusien artean maiztasun altuena erakusten du, 85 urterekin 8/10000 tasa lortu arte. Zenbaki absolutuetan, 2017an Bizkaian 98 suizidio erregistratu ziren, haien artean 50 urtetik beherako 41 pertsona eta hogeita hamar urtetik beherako bederlatzi.

### Garraio-istripuen eta erorikoen ospitaleratze-maiztasuna eta suizidioagatik hilkortasuna, adinaren eta sexuaren arabera. Bizkaia 2017



Iturria: Ospitaletako Alten Erregistroa DGOM eta Hilkortasun Erregistroa

Garraio-istripuen ondoriozko gizonen hilkortasuna beherantz doa nabarmen. Dena den, osospitaleratze-maiztasunaren joera aldatu egin da: beherantz zihoan 2012ra arte, baina azken bost urteetan handitzen ari da, eta gizonetan joera hori eranguratsua da.


Erorikoen ondoriozko hilkortasuna mantendu egiten da eta ospitaleratze-maiztasuna nabarmen igotzen da.

Emakumezkoetan suizidioen tasa mantendu egiten da eta gizonezkoetan apur bat igo.


